



MONTEBERRIAGA URBANIZAZIOKO (MUNGIA) HEGOALDEKO HUA ETA IPARRALDEKO HUA SANEAMENDU-SAREAN SARTZEKO PROIEKTU EGUNERATUEN OBRA-ZUZENDARITZARI LAGUNTZA TEKNIKOA EMATEKO ZERBITZUA KONTRATATZEKO ADMINISTRAZIO-KLAUSULA PARTIKULARREN AGIRIAREN KARATULA. ESPEDIENTE-ZK.: 3126

Erregulazio harmonizatuko kontratua	☐ BAI ☒ EZ
Espedientea izapidetzea	☒ Ohikoa, ☐ Urgentea, ☐ Larrialdia, ☐ Aurreratua
Mota	☒ Irekia ☐ Ireki sinplifikatua (SPKLaren 159.1 art.) ☐ Ireki super sinplifikatua (SPKLaren 159.6 art.)

A.- BOTERE ADJUDIKATZAILEA

1.- Botere adjudikatzailea:	Consortio de Aguas Bilbao Bizkaia / Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa
2.- Kontratazio-organoa:	☐ Zuzendaritza Batzordea ☐ Presidentea ☒ Gerentea
3.- Kontratuaren arduraduna:	David Diez Lopez
4.- Kontratazio Zuzendariordetzaren harremanetarako datuak:	contratacion@consorciodeaguas.eus Administrazio/teknika arloko kontsultak: 944 873 100
5.- Kontratatzailearen profila:	www.consorciodeaguas.eus https://www.contratacion.euskadi.eus/hasiera/

B.- KONTRATUAREN XEDEA

1.- Kontratuaren xedea: MONTEBERRIAGA URBANIZAZIOKO (MUNGIA) HEGOALDEKO HUA ETA IPARRALDEKO HUA SANEAMENDU-SAREAN SARTZEKO PROIEKTU EGUNERATUEN OBRA-ZUZENDARITZARI LAGUNTZA TEKNIKOA EMATEA BBUpeko teknikariek osatuko duten obra-zuzendaritzaren aginduetara, honako proiektu hauetako dagozkien obren exekuzioa zuzendu, kontrolatu eta zaintzeko giza baliabideen eta baliabide materialen koadroa osatzen duen laguntza teknikoak: - Monteberrriagako (Mungia) urbanizazioaren hegoaldeko HUA lehen mailako saneamendu-sarean sartzeko proiektu eguneratua. – Zabaldondo - La Bilbaina kolektorearen proiektu eguneratua, Monteberrriaga urbanizazioaren iparraldeko HUA (Mungia) udaleko saneamendu-sarean sartzeko. Kontratuaren xedea obra-zuzendaritzari aholkuak ematera eta hari obrari buruzko datuak lortzen laguntzera mugatzen da, eta ezin da ulertu adjudikaziodunaren edo langileen esku uzten dela obra-zuzendaritzari dagozkion erabakitzeak ahalmenak. Obra-zuzendaritzari laguntza teknikoak emateko zerbitzuak bost eremu funtzionaletan banatzen dira: A) Exekuzioaren zuzendaritza eta kontrola. B) Ingeniaritza, arkitektura eta kontsultoretza. C) Topografia. D) Bitarteko osagarriak. Garraioa E) Notario-aktak egitea.

2.- Zer beharri erantzun behar zaizkion: Egingo diren obren ezaugarriak kontuan hartuta, erreferentziatzeko obrak eskatzen diren eraginkortasun teknikoak eta aurrekontu-zorroztasuneko baldintzetan zuzentzeko behar diren bitarteko teknikoak eta materialak definitu dira. Halako lan handi batek bitarteko tekniko eta material jakinak behar ditu. Zuzendariordetza honek ez du gaitasunik horiek zuzenean egiteko. Aipatutako lanak egiteko beharra eta bitarteko propioekin egiteko ezintasuna kontuan hartuta, laguntza tekniko hau kontratatzekeko beharra dagoela ondorioztatzen da. Horregatik guztiagatik justifikatzen da laguntza teknikoak kontratu bat lizitatzea. Haren helburua da giza baliabideak eta baliabide materialak hornitzea, Zuzendariordetza honetako



B.- KONTRATUAREN XEDEA

teknikarien osagarri gisa, aipatutako lanak behar bezala kontrolatu ahal izateko, behar den eraginkortasun teknikoko baldintzekin.

3.- Loteka banatzea: ☐ Bai ☒ Ez

Loteka ez banatzeari buruzko justifikazioa: Sektore Publikoko Kontratuei buruzko 9/2017 Legearen 309. artikulua 1. puntuan adierazten den bezala, «ez da aldaketatzat hartuko (...) kontratuan aurreikusitako unitateen kopurutik egiaz gauzatutako kopuruan bakarrik gertatzen den aldaketa, prestazioa modu egokian ematen den bitartean gertatutakoa betiere; halakoak likidazioan jasotzen ahalko dira, kontratuaren prezioaren ehuneko 10etik gorako gastua igoera sortzen ez badute».

4.- CPV:

CPV kodea: 71000000-8

Deskribapena: Arkitektura-, eraikuntza-, ingeniari- eta ikuskaritza-zerbitzuak.

5.- Aldaeren edo alternatiben onargarritasuna:

☐ BAI

☒ EZ

Onartzeko kondizioak eta aldaera edo alternatibarik izan lezaketen elementuak: Ez da aplikagarria

6.- Izaera juridikoa

☒ Administratibo ☐ Pribatua

C.- KONTRATUAREN PREZIOA

1.- Lizitazio-aurrekontua
(BEZik gabe)

**EHUN ETA HOGEITA HAMALAU MILA
ZAZPIEHUN ETA LAUROGEITA HAMAR
(134.790,00) EURO**

2.- Kontratuaren balio zenbatetsia: 148.269,00 Euros

Loteak:

☐ BAI

☒ EZ

Sektore Publikoko Kontratuei buruzko 9/2017 Legearen 309. artikulua 1. puntuan adierazten den bezala, «ez da aldaketatzat hartuko (...) kontratuan aurreikusitako unitateen kopurutik egiaz gauzatutako kopuruan bakarrik gertatzen den aldaketa, prestazioa modu egokian ematen den bitartean gertatutakoa betiere; halakoak likidazioan jasotzen ahalko dira, kontratuaren prezioaren ehuneko 10etik gorako gastua igoera sortzen ez badute».

3.- Prezioa zehazteko sistema:

☐ Oroharreko prezioa

☒ Prezio unitarioak

4.- Urterokoak eta aurrekontu-kontsignazioa:

Kontratuaren aurrekontu-urterokoak eta kontratuaren gastuaren aurrekontu-aplikazioa:

2025 urtea: 100.000,00 €

459.07.601.22

2026 urtea: 34.790,00 €

459.07.601.22

5.- Prezioen berrikuspena:

☐ BAI

☒ EZ

6.- Finantzaketa kanpoko funtsekin:

C- KONTRATUAREN PREZIOA

☐ BAI ☒ EZ

7.- Ordaintzeko modua: Arrunta. Hileko ziurtagiria .

8.- Konturako abonua: Ez

D.- KONTRATUAREN EPEA

1.- Iraupen osoa

HAMASEI (16) HILABETE

Laguntza teknikoko kontratu honen xedea osatzen duten obrak amaitu arte luza daitezke, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko 9/2017 Legearen 29. artikuluan ezarritako mugekin.

Hau beste bi obra-kontraturen zerbitzu-kontratu osagarria da, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko 9/2017 Legearen 29. artikulua 7. puntuan adierazitakoa betez.

2.- Epe partzialak.

☒ BAI ☐ EZ

- Obrak hasi baino HILABETE (1) lehenago, kontratistaren eskaintza berrikusi eta aztertzeko, udalekin eta Monteberriaga urbanizazioaren batzordearekin koordinatzeko, jabeekin eta eraginpekoekin kudeaketak egiteko, obra-plana berrikusteko, hornitzaileak kudeatu eta baliozkotzeko, bai eta eragindako zerbitzuak kudeatzeko, obrak egin aurretik argazki-erreportajea egiteko ere.

- HAMAR (10) HILABETE, obra-zuzendaritzari laguntza teknikoa emateko, obrak egin eta garatzen diren bitartean. Obra bakoitzaren epea 10 hilabetekoa bada ere, kontuan hartuta kontratuak lizitatzeko prozesua paraleloan egingo dela, haien exekuzioa aldi berean egingo dela estimatzen da.

- HIRU (3) HILABETE, obren gainjartzearen balizko desfase bat estaltzeko, obraren baten kontratuaren hasiera atzeratzea dela kausa.

- BI (2) HILABETE gehiago, azken obra-kontratua amaitu ondoren, informazioa biltzeko eta egindako obren proiektuak prestatzeko (kontratuaren artean desfaseren bat badago, amaitu den lehenengoaren egindako obren proiektua egiteko bi hilabeteak amaitu ez den obrarako laguntzaren hilabeteekin gainjarriko dira).

Hona hemen desfase horien adibide adierazgarri bat:

MES	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12	13	14	15	16	
Contrato obras 1	PREV.	OBRA									CIERRE						
Contrato obras 2			PREV.	OBRA												CIERRE	

Adierazi behar da, halaber, obra-kontratuak adjudikatzeko eta hasteko mugarri administratiboen bilakaerak atzerapenak izan ditzakeela laguntza teknikoko kontratuaren izapidetzeari dagokionez, eta horrek kontratua hastea edo aldi baterako gelditzea baldintzatuko duela. Atzerapen edo geldiarazpen hori ez da konpentsatuko.

3.- Luzapena

☒ BAI ☐ FZ

Hau beste bi obra-kontraturen zerbitzu-kontratu osagarria da, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko 9/2017 Legearen 29. artikulua 7. puntuan adierazitakoa betez. Kontratu honen xedea osatzen duten obrak amaitu arte luzatu ahal izango da.

4.- Bermealdia: Ez da gorkio

5.- Kontratua exekutatzeko lekua: Mungia

6.-Lanak zatika jaso daitezke ☐ BAI ☒ EZ.



E.- BERMEAK

☒ Behin betiko bermea: % 5

Zenbatekoa: Adjudikazioa

☐ Berme osagarria:

Zenbatekoa:

F.- KAUDIMEN EKONOMIKOA EDO FINANTZARIOA

Urteko negozio-bolumena –aintzat hartuta amaitutako azken hiru urteetan negozio-bolumen handiena izan duen urtea– kontratuaren batez besteko urteko kopurua halako bat izan beharko da gutxienez.

G.- KAUDIMEN TEKNIKOA ETA PROFESIONALA

Kaudimen teknikoa egiaztatzeko, lizitatzailleek azken hiru (3) urteetan enpresa-mailan egindako lanen erreferentzien zerrenda aurkeztu beharko dute. Lan horiek agiri honetan lehiatzen direnekin lotura izan beharko dute. Zerrenda hori 2022. eta 2024. urteen artekoa izango da, biak barne, eta baztertu egingo da aurkezten den haien aurreko urteetako informazioa.

Aldi horretan egindako zerbitzu nagusien erreferentzietatik abiatuta, exekuzio handieneko urtean metatutako urteko zenbatekoa batez besteko urterokoaren % 50 edo handiagoa izatea eskatuko da. Alderdi hori egiaztatzeko, ulertuko da urte anitzeko kontratuak modu uniformean gauzatu direla kontratuaren iraunaldian zehar, non eta kontrakoa berariaz egiaztatzen ez den. Erreferentzia zehatz horien artean, obra ongi egin izanaren ziurtagiriak aurkeztu behar dira, egindako lanak deskribatzen dituztenak, bezero kontratatzaileak —pertsonea publikoa nahiz pribatua— emandakoak.

☒ Enpresa sortu berrien kaudimen teknikoa:

Enpresa sortu berrietan, aurreko kaudimen-egiaztapena horrelako proiektuetan izandako esperientziaren arabera egingo da. Esperientzia hori lan horiek egiteko esleituko diren teknikariek egiaztatuko dute.

KONTRATUARI ATXIKI BEHARREKO GUTXIENEO GIZA BALIABIDEAK

EXEKUZIOAREN ZUZENDARITZA ETA KONTROLA obren exekuzioaren zuzendaritzan, kontrolean eta zaintzan eskarmentu handia duten teknikariek osatutako gizatalde baten bidez egitea aurreikusten da. Lantalde horrek obran bertan jardungo luke.

Exekuzioa Zuzentzeko eta Kontrolatzeko Taldeak egingo ditu PTPAren 1.2.1 eta 1.2.2 ataletan deskribatutako eginkizun guztiak. Eraikitzaileak obra bakoitzerako aurreikusitako obrako bertako bulegoetan egingo da, obra-zuzendaritzaren titulartasuna duten Ur Partzuergoko langileen aginduetara. Obren exekuzioa zuzentzeko eta kontrolatzeko talde teknikorako aurreikusitako osaera, zeina lanen hasieran zein garapenean, obra-premien arabera, alda baitaiteke, honako hau izango da:

- ☐ Obrako ingeniari tekniko bat, bost urtetik gorako esperientzia duena, lanaldi erdian hamasei hilabetez.
- ☐ Obrako zaindari bat (laguntzaile tekniko), bost urtetik gorako esperientzia duena, lanaldi osoan hamar hilabetez; eta lanaldi erdian, lau hilabetez.
- ☐ Automatizazio eta Kontroleko ingeniari elektriko bat, bost urtetik gorako esperientzia duena, lanaldi erdian lau hilabetez, estimazioen arabera, baina PTPAren 1.2.2.2 puntuan definitutako funtzioek eskatzen duten dedikazioa izango du.

Eskatutako profil bakoitzari eskatzen zaizkion ezaugarri teknikoak eta profesionalak honako hauek dira:

Obrako ingeniari tekniko (unitateburua)

Obrako ingeniari teknikoak laguntza teknikoko taldeko unitateburuaren funtzioan jardungo du. Herri-lanetako teknikariaren edo meatzeetako teknikariaren titulua eduki behar du.

Obra zibilak zuzentzen, ikuskatzen eta kontrolatzen gutxienez bost (5) urteko esperientzia egiaztatu beharko du. Obra-zuzendaritzaren mende egongo da zuzenean.

Obrako zaintzailea (laguntzaile tekniko)

Delineatzaile proiektugilearen goi-mailako lanbide-heziketako tituluaren pareko prestakuntza izan beharko du, edo kategoria horrekin parekatua enpresan, eta obra zibilen kontrolean eta zaintzan gutxienez bost (5) urteko esperientzia egiaztatu.

Esperientzia eduki behar du honakoak erabiltzen: bulegotika, aurrekontuak kontrolatzeko tresnak eta proiektuen jarraipen ekonomikoa egiteko tresnak [SISPRE, PRESTO edo antzekoak; betiere PRESTOrekin (bc3) bateragarriak]. 2_2_050 Kontratazio-espedientea izapidetzeko datuak Or.: 5/10 S0046-0 Monteberriaga urbanizazioko (Mungia) hegoaldeko HUA eta iparraldeko HUA saneamendu-sarean sartzeko proiektu eguneratuetan obra-zuzendaritzari laguntza tekniko ematea.

Automatizazio eta kontroleko ingeniari elektriko

Automatizazio eta kontroleko ingeniari elektriko exekuzioa zuzentzeko eta kontrolatzeko berariazko laguntza gisa sartuko da talde teknikoan, agiri honen 1.2.2.2 puntuan zehaztutako eginkizunei dagokienez. Ingeniari elektrikoaren edo antzekoaren titulua izan beharko du.



Aurretik adierazitako zereginetan gutxienez bost (5) urteko esperientzia egiaztatuko du. Horrela osatutako talde teknikoa behar diren espezialistekin eta aholkulariekin indartuko da, obran zer behar dauden, obra-zuzendaritzari laguntza teknikoa emateko lana banatzen den gainerako eremuetarako. Horiek lanaldi partzialean jardungo dute, obran zer behar dauden, eta horien lana kontratuaren unitateko prezioen arabera ordainduko da.

ENPRESA-SAILKAPENA

ENPRESA-SAILKAPENA ☐ Bai, fakultatiboa ☒ Ez

H.- LIZITATZAILEEK AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK

1.- 1. gutun-azala: Erantzukizunpeko adierazpena.

2.- 2. gutun-azala: Balio-judizioen mende dauden irizpideei buruzko dokumentazioa.

3.- 3. gutun-azala: Automatikoki kuantifikatzeko irizpideei buruzko dokumentazioa.

BALIO-JUDIZIOEN MENDE DAUDEN IRIZPIDEI BURUZKO DOKUMENTAZIOA

1) Memoria teknikoa eta exekuzio-metodologia:

Atal honetan, lizitatzailleak berariaz laguntza honen xede diren kontratuetarako egin beharreko lanen memoria deskribatzailea zehaztuko du, eta alderdi hauek nabarmenduko ditu bereziki:

☐ **Proiektuen analisia**

Lizitatzailleak proiektuen eta haien ezaugarri nagusien azterlan bat egingo du, proiektuari buruzko ezagutza-maila adieraziko duena eta, ondoren, proposatutako lan-metodologia garatzeko abiapuntu izango diren oinarriak justifikatuko dituena.

☐ **Lan- eta antolaketa-metodologia orokorra**

Preskripzio Tekniko Partikularren Agirien I. kapituluaren zehaztutako lanak behar bezala exekutatzeko eta laguntza-taldea behar bezala antolatzeko jarraitzea proposatzen den metodologia zehaztuko da, azterketaren xede den obraren berezitasunetara egokituta.

Espazio-muga dela eta, metodologia orokorrak garatu beharreko lan nagusien laburpen argia eta zehatza izan beharko du, eta eranskin batean, bereiz, metodologia zehatzagoa txertatu ahal izango da, hari dagozkion erregistro-formatuekin.

☐ **Obran sartzen diren jarduketa nagusiak kontrolatzeko proposatzen diren prozedurak**

Lizitatzailleak obra-unitate garrantzitsuenen jarraipen eta kontrolerako (zangak egitea eta zangan hodiak ezartzea, fabrikako obrak exekutatzeko, zulatze horizontal zuzendua – tinkatze zuzendua, ibai eta erreken gurutzaketa eta abar) proposatzen dituen berariazko prozedurak garatu beharko ditu, bideratuta dauden obren ezaugarrietara egokituta eta zehaztuta.

Espazioa mugatua denez, prozedurek garatu beharreko lan nagusien laburpen argia eta zehatza izan beharko dute, eta eranskin batean, bereiz, prozedura zehatzagoak sartu ahal izango dira, haiekin lotutako erregistro formatuekin, bai eta benetako adibide praktikoak ere, egin beharreko prestazioen ezagutza erakuste aldera.

2) Kontratuaren eskura jartzen diren bitarteko teknikoak

☐ **Proposatzen den talde teknikoa eta zerbitzuaren egokitasuna**

Proposatutako talde teknikoaren osaera zehaztuko da, eta, profil bakoitzerako, titulazioa, arduraldi-maila eta esperientzia profesionala zehaztuko dira, lehiaketa honekin zerikusia duten arloei lotuta.



BALIO-JUDIZIOEN MENDE DAUDEN IRIZPIDEEI BURUZKO DOKUMENTAZIOA

Eranskin batean jasoko da profil bakoitzaren curriculum vitae, eta eskatutako gaian bakoitzak daukan esperientzia argi eta zehatz justifikatuko da.

Exekuzioa zuzentzeko eta kontrolatzeko taldeak obra zibiletan, profil bakoitzaren berezko lanetan, bereziki hornidura eta saneamenduko obretan, esperientzia gehigarria izatea baloratuko da.

☐ **Talde teknikoaren antolamendua**

Lizitatzailleak ezarriko du obraren exekuzioa zuzentzeko eta kontrolatzeko taldearentzat aurreikusitako antolaketa, eta hura osatzen duten profiletako bakoitzari esleitutako harreman eta funtzioak zehaztuko ditu, aurreko atalean deskribatutako metodologiarekin eta prozedurekin bat etorritz.

☐ **Kudeatzeko eta erantzuteko gaitasuna**

Obraren exekuzioa zuzentzeko eta kontrolatzeko lanei esleitutako bitartekoak ez ezik, kontraturako jarritako azpiegitura teknikoa eta giza baliabideak ere (obra-zuzendaritzari laguntza teknikoa ematearen gainerako arloetan unean-unean lagundu beharreko espezialistak eta aholkulariak) ezarriko ditu lizitatzailleak, eta kudeatzeko eta erantzuteko gaitasuna.

Lehen aipatutako dokumentazio teknikoaren edukiak kontratuaren xederako zehatza izan beharko du, eta gehienez 20 orrialde izango ditu, honako ezaugarri hauekin:

- ☐ DIN-A4 neurria.
- ☐ Letra mota eta gutxieneko letra-tamaina: ARIAL, 10 puntu.
- ☐ Gutxieneko lerroarte: 1,5 puntu.
- ☐ Gutxieneko goiko eta beheko marjinak: 2,5 cm.
- ☐ Gutxieneko ezkerreko eta eskuineko marjinak: 2 cm.

Gehieneko orrialde kopurua zenbatzeko, aurkibidea 20 orrialde horien barruan kontabilizatuko da. Ez dira zenbatuko azala eta kontrazala.

Salbuespen gisa, Din-A1 eta Din-A3 orriak sartu ahal izango dira, aurkezteko formatu horiek eskatzen dituen dokumentaziorako.

Orrialdeen guztizko zenbaketaren ondoretarako, kontratura bideratutako bitarteko teknikoaren atalean, ez da kontuan hartuko obrari esleitutako taldearen kualifikazioa eta esperientzia egiaztatzen duen dokumentazioa, eta informazio hori eranskin batean erantsi beharko da, bereiz.

Muga horrek ez du eraginik eranskinetan jasotako dokumentazioan.

Atal bakoitzerako ezarritako orrialdeak baino gehiago sartuz gero, balorazio teknikoan lehen orrialdeak bakarrik hartuko dira kontuan adierazitako gehienekora iritsi arte. Lerroarte, letra mota, letra-tamaina, marjinak eta abar errespetatzen ez badira, irizpide bera aplikatuko zaie adierazitako gehienekoa gainditzen duten orrialdeei, emandako dokumentazioari baldintza horiek aplikatu ondoren.

AUTOMATIKOKI KUANTIFIKATZEKO IRIZPIDEEI BURUZKO DOKUMENTAZIOA

Proposamen ekonomikoa, lizitatzailleak edo haren ordezkariak sinatua, nahitaez idatzita l. eranskinetako ereduari jarraikiz, eskainitako prezioan zerga guztiak, BEZa izan ezik, barne hartuta.

Proposamen ekonomikoa honako hauekin osatuko da:

a) **Prezioen zerrenda.**

Preskripzio tekniko partikularren agirian zehaztutako unitateen prezio unitarioen zerrenda, preskripzio tekniko partikularren agiriaren III. atalean (LANAK NEURTZEA ETA ORDAINTZEA) zehazten diren baldintzen arabera eta aipatu agiriaren II. eranskinetako taularen arabera.

b) Egindako lanen exekuzio-aurrekontua, prezio unitarioetan egindako lanen batura oinarri hartuta. Horien neurketa bat dator aurrekontu partzialei dagokien neurketarekin.



I.- ESKAINTZAK AURKEZTEKO TOKIA ETA EPEA

- 1.- Eskaintzak aurkezteko epea: Kontratatzailearen profilean adierazitakoa
 - 2.- Eskaintzak aurkezteko tokia (AKPAren 13. klausulan ezarritakoa ez beste bat bada soilik):
 - 3.- Eskaintzak elektronikoki aurkeztu behar dira ☒ BAI ☐ EZ
- Eskaintza elektronikoa aurkezteko plataforma elektronikoen helbidea:
<https://contratacion.consortiodeaguas.eus/site/3>

J.- KONTRATAZIO-MAHAIA/ADITUEN BATZORDEA

☒ Kontratazio-mahaia

Presidenteak:
Ekaitz Mentxaka Corral jn.

Kideak:
Mikel Magunazelaia Pinaga jn.
Xabier Orue Moro jn.
Itziar Zarate Urrutia and.
Gerardo Latorre Pedret jn.
Jose Manuel Pereda Renobales jn.

Idazkaria:
Gerardo Latorre Pedret jn.

K. ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK

1.- Adjudikazio-irizpideak:

Lehiaketa adjudikatzeko oinarri, baloratu beharreko alderdi gisa, erabili beharreko irizpideak, hauek dira:

AUTOMATIKOKI KUANTIFIKATZEKO IRIZPIDEAK: 50 PUNTU

Irizpide honetan 50 puntu emango dira gehienez.

Eskaintza ekonomikoak eskaintza bakoitzaren baja-ehunekoei (Bi) proportzioan baloratuko dira, honela:

Bmax	50 puntu
(Bmax + BBM) / 2	48 puntu
BBM	47 puntu
0,8 x BBM	46 puntu
0,6 x BBM	44 puntu
Lizitazio-aurrekontua	0 puntu

Non:

- Bi: Eskaintzaren baja-ehunekoa, hau da, lizitazio-aurrekontuaren eta eskaintza-zenbatekoaren arteko kendura zati lizitazio-aurrekontuaz egitean ateratzen dena, ehunekotan adierazita.
- Bmax: Gehieneko bajaren ehunekoa, eskaintzarik ekonomikoenari dagokiona
- BBM: Batez besteko bajaren ehunekoa, lizitatzailerik bakoitzaren baja-ehunekoen batezbesteko aritmetikoaren emaitza

K. ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK

Onartutako gainerako eskaintzen puntuazioa aterako da aurretik zehaztutako puntu-banaketa linealki interpolatuta.

Hori horrela, Bi baja bakoitzari esleitutako Pi puntuazioa honako hau da:

Baldin eta $0 < Bi \leq 0,6 \times BBM$

$$Pi = \frac{Bi}{0,6 \times BBM} \times 44$$

Baldin eta $0,6 \times BBM < Bi \leq 0,8 \times BBM$

$$Pi = 44 + \frac{(Bi - 0,6 \times BBM)}{0,2 \times BBM} \times 2$$

Baldin eta $0,8 \times BBM < Bi \leq BBM$

$$Pi = 46 + \frac{(Bi - 0,8 \times BBM)}{0,2 \times BBM}$$

Baldin eta $BBM < Bi \leq (BBM + Bmax) / 2$

$$Pi = 47 + \frac{(Bi - BBM)}{(Bmax - BBM)} \times 2$$

Baldin eta $(BBM + Bmax) / 2 < Bi \leq Bmax$

$$Pi = 48 + \frac{(2 \times Bi - BBM - Bmax)}{(Bmax - BBM)} \times 2$$

BALIO-JUDIZIOEN MENDE DAUDEN IRIZPIDEAK: 50 PUNTU

Eskaintza teknikoak guztira 50 puntuko balorazioa du, honela banatuta:

- 1- Exekuzioaren memoria teknikoa eta metodologia (30 puntu)
 - Proiektuen analisia (15 puntu)
 - Lan- eta antolaketa-metodologia orokorra (10 puntu)
- Obran sartzen diren jarduketa nagusiak kontrolatzeko proposatzen diren prozedurak (5 puntu)
- 2- Kontratuaren eskura jartzen diren bitarteko teknikoak (20 puntu)
 - Proposatzen den talde teknikoa eta zerbitzuaren egokitasuna (10 puntu)
 - Talde teknikoaren antolamendua (5 puntu)
 - Kudeatzeko eta erantzuteko gaitasuna (5 puntu)

2.- Berdinketa hausteko irizpideak:



K. ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK

Zenbait eskaintzaren arteko berdinketa hautsiko da honako irizpide sozial hauek, eskaintzak aurkezteko epea bukatzeko momentuari buruzkoak, aplikatuz:

- Enpresetako plantilletatik desgaitasuna duten edo gizarte-bazterketako egoeran dauden langileen ehuneko handiena duena; berdinketa gertatuz gero, plantillan langile desgaitu gehien duena edo plantillan inklusio-neurrien bidez langile gehien duena.
- Plantillan aldi baterako kontratuen ehuneko txikiena duen enpresa.
- Plantillan emakume enplegatuen ehuneko handiena duen enpresa.
- Zozketa, aurreko irizpideak aplikatuta berdinketa ebatzi ez bada.

3.- Eskaintza anormalki txikitat jotzeko irizpideak:

Eskaintza anormalki txikitat joko da honako egoera hauetako batean badago:

- Baldin eta, lizitatzailerak bakarrik, lizitazioaren oinarritzko aurrekontua baino portzentajezko 25 unitate txikiagoa bada.
- Bi lizitatzailerak egonik, beste eskaintza baino portzentajezko 20 unitate txikiagoa dena.
- Hiru lizitatzailerak egonik, aurkeztutako eskaintzen batezbesteko aritmetikoa baino portzentajezko 10 unitate txikiagoak direnak. Nolanahi ere, zenbatekorik handieneko eskaintza ez da kontuan hartuko batezbestekoa zenbatzeko, baldin eta batezbesteko bakarrik baino portzentajezko 10 unitate handiagoa bada, ausarkeria-atalase berria finkatzeko baino ez, eta ezarritako sailkapen-hurrenkeran inolako eraginik izan gabe. Dena den, neurrigabetzat joko da portzentajezko 25 unitatetik gorako baja.
- Lau lizitatzailerak edo gehiago badaude, aurkeztutako eskaintzen batezbesteko aritmetikoa baino portzentajezko 10 unitate txikiagoak direnak. Hala ere, haietako eskaintza batzuk batezbestekoa baino portzentajezko 10 unitate baino handiagoak badira, egoera horretan ez dauden eskaintzekin bakarrik egingo da batezbestekoa, ausarkeria-atalase berria finkatzeko baino ez, eta ezarritako sailkapen-hurrenkeran inolako eraginik izan gabe. Nolanahi ere, gainerako eskaintzen kopurua hirutik beherakoa bada, batezbesteko berria zenbatekorik txikieneko hiru eskaintzen gainean kalkulatu da.

Talde bereko enpresek eskaintzak aurkezten badituzte, eskaintzarik txikiena baino ez da kontuan hartuko anormaltasun-presuntzioan dauden eskaintzak identifikatzeko araubidea aplikatzeko, alde batera utzita eskaintza bakarrik edo taldetik kanpoko enpresa batekin edo batzuekin batera, aldi baterako elkarturik, aurkeztu duten.

4.- Lizitatzaileri, hautapen-prozesua jarraitzeko, eskatutako gutxieneko puntuazio-atalasea:

Baztertzeko arrazoia izango da eskaintzaren balorazio teknikoan **25 puntu** gutxienez ez lortzea.

L.- KONTRATUA EXEKUTATZEKO KONDIZIO BEREZIAK

PTPAn zehaztutakoak.

M.- ZIGOR ZEHATZAK

PTPAn adierazitako kasuak eta ekintzak.

N.- ADJUDIKAZIODUNAK AURKEZTU BEHARREKO ERANTZUKIZUN ZIBILEKO ASEGURUA

Arrisku profesionalengatik erantzukizuneko aseguru dagoelako egiaztagiria.

Ñ.- KONTRATUA ALDATZEA

Laguntza teknikoko kontratuaren benetako epea lotutako obraren epeari zuzenean lotuta egongo da, eta, beraz, luzatu edo murriztu ahal izango da, obraren aurrerapena nolakoa den.

O.- AZPIKONTRATATZEKO AUKERA

☒ Hasieran aurkezteko betebeharra



P.- SUBROGAZIOA

Ez

Q.- ERREKURTSO BEREZIA

☒ BAI

☐ EZ

KONTRATUA EXEKUTATU BITARTEKO BETEKIZUNAK

Hasiera batean proposatutako lantaldeko edozein kidek baja hartzen badu, kontratistaren ordezkariak beste kide bat proposatuko dio BBUPEko kontratu-arduradunari, jakinaren gainean egon dadin. Langileei eska dakizkiekeen kontratu-baldintzak bete beharko ditu nahitaez, eta ordezkatzeko duenaren gaitasun bera edo handiagoa izan beharko du, gehienez ere hamabost eguneko epean, baja hartzen den egunetik zenbatzen hasita.

KONTRATISTAREN ORDEZKARIA

Enpresa adjudikaziodunak jarduteko eta/edo enpresaren ordezkari izateko gaitasun nahikoa duen ordezkari bat atxiki beharko dio kontratuari, kontratuaren harremanei eragiten dien guztian.

BESTE GOGOETA BATZUK

Materialak edo osagaiak fabrikatzen dituzten sozietateekiko eta enpresa sustatzaile, eraikitzaile edo instalatzaileekiko independentzia juridiko eta ekonomiko osoa izateari buruzko ziurtagiria edo berariazko adierazpena eskatuko zaie enpresa lizitatzaileriei.

LIZITATZAILEEN GALDEREN TXANDA

- Eskaintzak aurkezteko epean, galdera-txanda bakar baten aukera izango dute lizitatzaileriek.
- Galderak idatziz egin beharko dizkiote BBUPI, Kontratazioko Zuzendariordetzari zuzenduta.
- Lizitazioa argitaratzen denetik eskaintzak aurkezteko azken eguna baino hamar egun natural lehenago arteko galderak onartuko dira.
- BBUPEk idatziz erantzungo die egindako galdera guztiei, eta eskaintzaile guztiei jakinaraziko dizkie eskaintzak aurkezteko epea amaitu baino hiru egun lehenago.